


Euskal AEko industria-prezioak % 0,8 igo dira 2024ko uztailan aurreko hilaren aldean

2023ko uztailaren aldean, industria-prezioek % 3,9ko jaitsiera izan dute

Euskal AEko industria-prezioak % 0,8 igo dira 2024ko uztailan aurreko hilaren aldean, Eustatek landutako datuen arabera. Uztaileko urte arteko tasa (azken hamabi hilabeteetan industria-prezioek izandako aldakuntza laburbiltzen duena) % 3,9 jaitsi da.

Azterketa zehatzago batek agerian uzten du, 2024ko uztailan, *Energia elektrikoa, gasa eta lurruna* eta *Produktu informatiko, elektroniko eta optikoen fabrikazioa* sektoreek igo dituztela gehien prezioak, aurreko hilaren aldean. Bi kasuetan % 1,8. Aitzitik, prezioetan hiletik hilerako jaitsierarik handienak izan dituzten sektoreak *Erauzketa-industriak* (% 3,0) eta *Industria kimikoa* (% 0,4) izan dira.

Euskal AEko industria-prezioen indizearen urte-arteko aldakuntza-tasa. (%)



Iturria: Eustat. Industria-prezioen indizea

Helburu ekonomikoaren araberrako ondasunen sailkapenari jarraituz, 2024ko ekainaren aldean, *Energiaren* prezioak % 1,3 igo dira, *Bitarteko ondasunenak* % 0,9 eta *Ekipamenduko ondasunenak*, berriz, % 0,2. *Kontsumo-ondasunen* prezioak % 0,9 igo dira, *Kontsumo ez-iraunkorreko ondasunen* prezioak % 1,0 igo direlako, *Kontsumo iraunkorreko ondasunen* prezioak aldatu ez izanaren ondorioz.

Urte arteko datuetan, 2024ko uztailean, 2023ko uztailaren aldean, prezio-jaitsierarik handienak honako arlo hauek izan dituzte: *Energia elektrikoa, gasa eta lurruna* (% 31,6) eta *Koke-lantegiak eta petrolio-fintzea* (% 1,6). Aitzitik, urte artean igoerarik handiena izan duten prezioak honakoak izan dira: *Erauzketa-industriak* (% 10,7), eta *Ehungintza, jantzigintza, larrugintza eta oinetakogintza* (% 5,4).

insertatabla_19329

Helburu ekonomikoaren arabera ondaren talde handien prezioen urte arteko aldakuntza negatiboa izan da *Energian* (% 20,4) eta *Bitarteko ondasunetan* (% 0,1) emandako jaitsierarekin. *Kontsumo-ondasunen* prezioak % 0,2 igo dira, *Kontsumo iraunkorreko ondasunenak* % 3,4 igo direlako, *Kontsumo ez-iraunkorreko ondasunenak* % 0,2 jaitsi direla kontuan hartuz. Azkenik, *Ekipamenduko ondasunen* prezioak % 2,5 igo dira urte artean.

INFORMAZIO-OHARRA

Eustatek eskerrak eman dizkie parte hartu duten establezimendu guztiei egin duten esfortzuagatik. Haiei esker, hilabete honetako indizea laginaren % **86,0**ko estaldurarekin kalkulatu da.

Informazio gehiago nahi izanez gero:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prensa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel.: 945 01 75 62